

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hezkuntzak 27.900 euro banatuko ditu ikasketxeetan ikerketa proiektuak bultzatzeko

Bost ikerketa finantzatuko dira Nafarroako Unibertsitate Publikoan eta Nafarroako Unibertsitatean

Osteguna, 2018.eko urriak 18

Unibertsitate eta Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusiak ikasketxeetan ikerketa-proiektuak egiteko [dirulaguntza-deialdia ebatzi du](#). Guztira, 27.900€ banatuko ditu Nafarroako Unibertsitate Publikoan eta Nafarroako Unibertsitatean egingo diren bost ikerketa finantzatzeko.

Deialdi honek bi helburu ditu. Alde batetik, zientzia-ikerketaren arloko ezagutza ikasketxeetara zabaltzea (enpresa arloan gero eta sarriago aplikatzen ari den ezagutzaren transferentzia deritzona), eta bestetik, Hezkuntza Departamentuari Nafarroan esparru pedagogikoaz harantzago dauden interes estrategikoko zeharkako gaiei buruzko datu zientifiko espezifikoa jasotzeko aukera eskaintzea.

Ekintza hau Hezkuntza Kontseilariak, Nafarroako unibertsitate presentzialetako Errektoreek eta UNEDi atxikitako zentroetako zuzendariak martxoan sinatu zuten Ikerketa-Jarduerak egiteko Hitzarmenean jasotakoari jarraiki gauzatuko da.

Hitzarmenak jarduera hori errazten die ikertzaileei, funts publikoekin finantzatzen diren ikasketxeetarako sarbidea bermatuz, eta ikasketxe horietan ezagutza transmititzeko jardunaldiak egitera ere behartzen ditu, Administrazioari zientzia arloko aurkikuntzak eremu akademikotik harantzago zabaltzeko beharra ezarriz.

Diruz lagundutako ikerketek era askotako helburuak dituzte; hala nola, hurrek atzerriko hizkuntzetan idatzitako sormen-lanetan ereduak eta zuzenketak erabiltzea, eskola munduan ikerketa sartzea (berezi nesken artean, STEM adarrei dagokienez), haurtzaroan elikagaiak hautatzea eta haurren obesitatea eta gehiegizko pisua prebenitzea, edota hezkuntza inklusiboa eta gaixotasun arraroak dituzten ikasleen aurkako eskola-jazarpenaren prebentzioa.

Deialdiak 16 proiektu-eskaera jaso ditu, eta datu honek oso-osorik egiaztatzen du Nafarroako unibertsitateek garrantzizko eta gaurkotasunezko gaiei ekiteko duten potentzialtasuna. Ekimena Hezkuntza Departamentuak zientzia zabaltzeko abiarazi dituen [#Ikerketablrblla](#) [#investigacióncircular](#) [#circulaResearch](#) bezalako ekintza-esparruaren barruan garatu da.